

5. DIRU ITURRIAK

KULTUR-ETXE, bere motorra herria izango den enpresa bat da, horregatik uste dugu enpresa hau publikoa izan behar dela. Jarraitzeko esan beharra dago, ez dakigula herriak zer motatako baliabide ekonomiko dituzten ere. Horregatik uste dugu herrian gerta daitekeen egoera mota oro neurtu behar dugula, eskaintzen dugun espazio hori edonork erabil dezan.

Zerbitzu publikoa denez, Udalarekin harremanetan jarriko gara, laguntza eta proiektu honen berri emateko Ikusirik Durangoko Udalak haurraren garapenari garrantzia eman nahi diola, uste dugu proiektu hau eskaintzea onuragarria izango dela herritarrentzako.

Gainera, aliatuak ditugun ikastetxeek, zati ekonomikoa eskaini ahal izango digute, beraiek ezin baitute horrelako zerbitzurik eskaini klase-orduetan, dekretuan esaten den bezala, haur bat ezin da zortzi ordu baino gehiago ikastolan egon.

Beraz, haien laguntza ekonomikoak haurrei garapen intelektual aurreratuagoa izaten lagunduko die.

Amaitzeko, sortutako web orriari esker, produktuak salduko ditugu. Produktu horiek, hurrek egingo dituzte, baina baita objektu desberdinak aurkituko dira. Horiei esker, diru sarrera bat izango dugu, inolako kosturik gabe; izan ere, eskaintzen ari garen zerbitzuan egindako produktuak izango direlako. Gainera, web gunean aurkituko diren prezioak merkeak izango dira (erosten duzun kopuruaren araberako prezioak izango dira)